

ARRANKUDIAGAKO UDALA

IRAGARPENA, Arrankudiagako hiri lurzorua erre-sidentzailean lurzatiak ixteari buruzko araudiaren udal ordezko arauen aldaketa puntualari hasierako onarpena eman zaiola jakinarazteko dena.

15923

IDIAZABALGO UDALA

IRAGARPENA, Idiazabalgo 13. Sektoreko (Goardia) Aldatutako Plan Partzialeko 1. zk.ko Elementu Aldaketa dokumentuaren hasierako onarpenari buruzkoa.

15924

AYUNTAMIENTO DE ARRANKUDIAGA

ANUNCIO de la aprobación inicial de la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias Municipales de la Normativa de Cierres de Parcelas en Suelo Urbano Residencial en Arrankudiaga.

15923

AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

ANUNCIO relativo a la Aprobación inicial del documento de Modificación de Elementos n.º 1, relativo a las parcelas D y E del Plan Parcial Modificado del Sector 13 (Goardia) de Idiazabal.

15924

Pribatuen iragarpeneak**SPRILUR, S.A.**

IRAGARPENA, hornitzaile izateko eskabide publikoak egiteari buruzkoa.

15924

IRAGARPENA, hornitzaile izateko eskabide publikoak egiteari buruzkoa.

15925

Anuncios Particulares**SPRILUR, S.A.**

ANUNCIO relativo a la solicitud pública de candidatos a proveedores.

15924

ANUNCIO relativo a la solicitud pública de candidatos a proveedores.

15925

Xedapen Orokorrak**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA****Zk-3893**

ERABAKIA, 1998ko uztailaren 28ko, Hezkuntza sailburuordearena, Antolatutako Hezkuntza Jarduera (AHJ) Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko lehenengo mailarako arautzen duena.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak, Bigarren Xedapen Gehigarrian, ezartzen du zein arautara egokitu behar den erlijio-irakaskuntza.

Abenduaren 16ko 2438/1994 Errege Dekretuak «Erlilioaren irakaskuntza arautzen duenak (1995eko urtarrilaren 26ko EAO)», 3.2 atalean ezartzen duenez, ikastetxeek ordezko ikasketa-jarduerak antolatuko dituzte erlijio-irakasgaia aukeratu ez duten ikasleentzat; jarduera horiek izaera osagarria izango dute, eta erlijio-gaiak irakasten diren ordu berberetan emango dira.

Disposiciones Generales**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN****Nº-3893**

RESOLUCIÓN de 28 de julio de 1998, del Viceconsejero de Educación por la que se regula la Actividad Educativa Organizada (AEO) para el primer curso de Bachillerato en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, en su Disposición Adicional Segunda establece las normas a las que ha de ajustarse la enseñanza de la Religión.

El Real Decreto 2438/1994, de 16 de diciembre, por el que se regula la enseñanza de la Religión (BOE de 26 de enero de 1995), establece en su artículo 3.2. que para los alumnos y alumnas que no hubieran optado por seguir enseñanza religiosa, los centros docentes organizarán actividades de estudio alternativas, como actividades complementarias, en horario simultáneo a las en-

Jarduerok, edozein hezkuntza-jarduerak bezalaxe, lagundu egingo dute urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak etapa bakoitzerako ezarritako helburuak lortzen.

Legeak 4.3 atalean dakarrenez, jarduera hauek, batetik, derrigorrezkoak izango dira erlijio-irakaskuntza hartzen ez duten ikasle guztientzat eta, bestetik, ikasleen adina kontuan hartuta egokituko dira. Jarduera horiek ez dira evaluatu beharko eta ez dira ikasleen ikas-keta-espedienteetan agertuko.

1997ko ekainaren 27ko Aginduak æEuskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Batxilergoaren ezarpen orokorra arautzen duenakæ 20. atalean adierazten due-nez, ordezko jarduera hauek «erlijio desberdinen adierazpen idatzi, plastiko eta musikalei buruzkoak izango dira, gertakari, pertsonaia eta sinbolo garrantzitsuak ezagutzeko eta horiek garai desberdinako ikuskera filosofikoan eta kulturan izan duten eragina ezagutze-ko».

Ondorioz, hona

ERABAKIA:

Lehenengoa.— Erabaki honetan xedatzen dena aplikagarri izango da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko zein pribatu guzietan, baldin eta horietan Batxilergoko zeinahi modalitate irakasten bada.

Bigarrena.— Erlilio eta moral katolikoko nahiz beste erlijioetako gaiaik ikastea eskatu ez duten ikasleek hezkuntza-laguntza jasoko dute, behar bezala antolatua, irakaskuntza horietarako programatutako denbora berean, hala ezartzen baita 1997ko ekainaren 27ko Aginduaren 20. atalean.

Hirugarrena.— 1.— Aurreko puntuaren aipatzen den hezkuntza-laguntza, bada, antolatutako hezkuntza-jarduera (AHJ) gisa eratuko da. Ikastetxeek AHJko irakaskuntzak eskainiko dituzte; eta, horretarako, behar bezala planifikatuko dituzte eta etapako curriculum-proiektuan sartuko.

2.— Jarduera hauek zentzua, helburua eta edukia izango dituzte hezkuntzaren aldetik, eta lagundi egin beharko dute etapako helburuak lortzen eta gaitasun orokorrak garatzen.

3.— Irakaskuntza hauen edukiak erlijioen eta erlijio-egitateen adierazpen soziokulturalak ditu ardatz, baina baita pentsamendu filosofikoan duten eragina ere. Hona, beraz, proposatzen den ordezko aukera: erlijio-fenomenoa gizartearren eta antropologiaren egitate moduan ikastea, eta ikasi ere erlijio-eskolen ordu berberean.

4.— Jarduerok garatzeko, curriculum-proposamena aurkezten da bertan: gai-multzoka banatuta, aukera ematen du gai horien inguruko hezkuntza-jardueren sorta antolatuak egituratzeko. Erabaki honen I. eranskinean agertzen dira, honenbestez, Batxilergoko lehe-

señanzas de Religión. Dichas actividades contribuirán, como toda actividad educativa, a los objetivos que para cada etapa se han establecido en la Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre.

Así mismo, en su artículo 4.3. establece que estas actividades serán obligatorias para los alumnos y alumnas que no opten por recibir enseñanza religiosa y se adaptarán a su edad. Tales actividades no serán objeto de evaluación y no tendrán constancia en los expedientes académicos de los alumnos y alumnas.

El artículo 20 de la Orden de 27 de junio de 1997, que regula la implantación generalizada del Bachillerato en la Comunidad Autónoma del País Vasco, señala que estas actividades alternativas «versarán sobre manifestaciones escritas, plásticas y musicales de las diferentes confesiones religiosas, que permitan conocer los hechos, personajes y símbolos más relevantes, así como la influencia en las concepciones filosóficas y en la cultura de las distintas épocas.

Por todo ello,

RESUELVE:

Primero.— Lo dispuesto en la presente Resolución será de aplicación en los centros docentes, públicos y privados, situados en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco que imparten la etapa de Bachillerato en cualquiera de sus modalidades.

Segundo.— Los alumnos y alumnas que no hayan solicitado que les sean impartidas enseñanzas de Religión y Moral Católicos o de otras Religiones, recibirán atención educativa debidamente organizada durante el tiempo programado para las citadas enseñanzas, tal y como establece el artículo 20 de la Orden de 27 de junio de 1997.

Tercero.— 1.— La atención educativa a la que se refiere el punto anterior se concretará en enseñanzas de Actividad Educativa Organizada (AEO). Los Centros desarrollarán las enseñanzas correspondientes a la AEO, que deberán ser debidamente planificadas e incluidas en el Proyecto Curricular de Etapa.

2.— Estas actividades tienen sentido, finalidad y contenido educativo y deberán contribuir a la consecución de los objetivos y al desarrollo de las capacidades generales de la etapa.

3.— El contenido de estas enseñanzas se centra en las manifestaciones socioculturales de las religiones y del hecho religioso, así como su incidencia en el pensamiento filosófico. El estudio del fenómeno religioso como hecho social y antropológico se propone como alternativa en horario simultáneo a las enseñanzas de religión.

4.— Para el desarrollo de estas actividades sea presentada una propuesta curricular, organizada en bloques temáticos que permiten estructurar en torno a ellos conjuntos ordenados de actividades educativas. La propuesta de bloques temáticos que permiten estructurar de for-

nengo mailarako proposatzen diren jardueren gai-multzooak.

Laugarrena. – 1.– Aipatutako irakaskuntzak ez dira ebaluatuko, eta ez dira ikasleen ikasketa-expedientes teetan agertuko. Hori horrela izanik ere, familiei bidaltzen zaien informazioaren zati izan daitezke, izan ere, hala egin behar da ikastetxeen egiten den edozein hezkuntza-jarduerarekin.

2.– Hezkuntza-jarduera hauek, batez ere filosofia-espezialitatekoak izango dira.

Bosgarrena. – Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketako Sailak, batetik, gai honi buruzko proposamenak egingo ditu, eta ikastetxeek eredu gisa erabili ahal izango dituzte proposamenok erlijioaren ordezko jarduerak antolatzeko; bestetik, irakasleak prestatzeko jarduerak antolatuko ditu; eta, halaber, Erabaki honetako jarduerak garatzeko ikasmaterialaren lanketa eta banaketa bultzatuko du.

AZKEN XEDAPENA

Erabaki hau EHAAn argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko uztailaren 28a.

Hezkuntza sailburuordea,
ALFONSO UNCETA SATRÚSTEGUI.

I. ERANSKINA BATXILERGOAN ANTOLATUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERAK

1.– Sarrera.

Fenomeno erlijiosoa oso konplexua da eta era askotara agertzen: batzuek norberaren Jainkoaren sinesmenen dute eta besteek indar natural impertsonalak gurtzen dituzte; batzuek absolutua den zerbaiti laguntza eskatzen diote eta besteek uste dute norberaren ezagutzaz sakona dela fenomeno erlijiosoa aurkitzeko bidea. Horregatik guztiagatik, gizartearen eta antropologien fenomenotzat jo behar da erlijioaren egitatea. Fenomenoa iraunkorra da denboraren joanean eta esparru hori murrizteko ahaleginak alperrikakoak dira, izan ere, gaur egun, zail da jartzen erlijioaren eta erlijio ez de-naren arteko muga.

Bestalde, ez dago erlijiorik gabeko gizatalderik, hau da, ez dago gizatalderik sinesmenik edo sakratua, Jainkotiarra, haraindikoa gurtzen dituen erakunderik ez duenik. Egitate erlijiosoa funtsezkoa da gure zibilizazioan eta gure kulturan. Eta ez hori bakarrik; gure zibilizazioa eta kultura ezin dira erabat ulertu, ez badira ondo aztertzen zein nolako harremanak dauden gizakion eta fenomeno erlijiosoaren artean, eta zein nolako oinarrizko eta agerpeideak dituzten.

ma ordenada estas Actividades para este primer curso de Bachillerato, figura en el Anexo I de la presente Resolución.

Cuarto. – 1.– Las citadas enseñanzas no serán objeto de evaluación ni tendrán constancia en los expedientes académicos de los alumnos y alumnas, aunque podrán formar parte de la información enviada a las familias, al igual que cualquier otra actividad educativa desarrollada en el centro.

2.– Estas actividades educativas se adscribirán preferentemente a la especialidad de Filosofía.

Quinto. – El Departamento de Educación, Universidades e Investigación elaborará propuestas, que podrán servir como modelo a los centros para organizar sus actividades educativas alternativas a la Religión, organizará actividades de formación del profesorado y fomentará la elaboración y distribución de materiales didácticos para el desarrollo de las actividades a las que se refiere la presente Resolución.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1998.

El Viceconsejero de Educación,
ALFONSO UNCETA SATRÚSTEGUI.

ANEXO I ACTIVIDADES EDUCATIVAS ORGANIZADAS EN BACHILLERATO.

1.– Introducción.

Lo religioso es un fenómeno complejo que se manifiesta en formas múltiples: desde la creencia en un Dios personal hasta la adoración de fuerzas naturales impersonales, desde la invocación como gesto dirigido a lo Absoluto hasta la consideración de que es en el conocimiento profundo de sí mismo donde se encuentra lo religioso. Por eso es preciso abordar el hecho religioso como un fenómeno social y antropológico, constante a lo largo del tiempo y en el que los esfuerzos reduccionistas no tienen sentido, ya que hoy es difícil trazar la frontera entre lo religioso y lo no religioso.

Por otro lado, no hay sociedad humana conocida sin religión, es decir, sin creencias e instituciones relativas a una relación con lo sagrado, lo divino, lo trascendente. El hecho religioso es parte esencial de nuestra civilización y de nuestra cultura y estas no pueden entenderse de forma plena sin el conocimiento de los fundamentos, manifestaciones más significativas y comportamientos y formas de relacionarse del ser humano con el hecho religioso.

Erlilioa fenomeno kulturala da eta, hein horretan, ez du autonomiarik edo aparteko izaerarik gizartearen gainerako agerpideekiko, hau da, politikarekiko, ekonomiarekiko, artearekiko, familiaren antolamenduarekiko... Ildo horretan, sinesmenak eta erlilioaren gizarte-praktika ulertzeko eta arrazoia azaleratzeko, ezinbesteko da sinesmenok sortu diren gizartean txertatzea. Erlilioak guztiz errrotuta daude gizarteetan, eta zail geratzen da, zati batean behintzat, kultura jakin bat uler-tzea ez bada, aldi berean, erlilioaren eragina azterzen.

Erlilioa, funtsean, harreman-mota bat da, gizakiak sakratuarekin eta haraindikoarekin duena, baina baita sakratuak norberaren eragiten dituen erreakzioak biltzen dituena. Hala ere, sakratuaren eta gizatiarraren arteko harremana azaleratzen denean eta egitate erlilio-soan parte hartzen dutenak gurtza-ekitaldian elkar-tzen direnean, erlilioa gizartearen fenomeno bihurtzen da. Bi dira, beraz, egitate erlijiosoa osatzen duten ele-mentuak: gizabanakoaren dimentsioa eta gizartearen di-mentsioa.

Curriculumaren proposamen honetan, egitate erlijiosoen bi ikuspegi elkartzen dira: ikuspegi zientifiko eta laikoa. Egitate erlijiosoa interpretatzeko, azterketa zientifiko egin behar da, izan ere, horrela, balia-garria izango da guztiontzat; eta horrek diziplinanitze-ko jokabidea eskatzen du egitate erlijiosoarekin zeriku-sia duten zientzien artean (antropología, filosofía, so-ziología, historia, filología). Bestalde, ez da garrantzi txikiagokoa izaera laikoa, horrek bermatuko baitu si-nesmen guztientzako askatasun-esparrua; berton, sines-men guztiak errespetatuko dira, eta aniztasuna gizartearen eta kulturaren elementu aberasgarri gisa onar-tuko da.

Aurreko etapan, gizartearen eta kulturaren elemen-tuak hartu dira egitate erlijiosoa aztertzeko ardatz na-gusitzat. Batxilergoko maila honetan, berriz, erlilioa-ren izaera bera aztertu eta kritikoki hausnartuko da, bai-na baita arrazoaren eta sinesmenaren arteko harreman-nak, eta erlilioaren eta elkarbizitza zibiko nahiz politi-koaren arteko harremank aztertuko ere. Helburua da, beraz, ikasleek egitate erlijiosoa bera zer den ikustea eta, aldi berean, aztertzea, beti ere arrazoaren, filosofiaren nahiz zientzian eta filosofian oinarritutako hezkuntza-ren bidezko pentsamendutik abiatuta.

2.- Helburuak.

Hezkuntza-jarduera hauek lagundu egin behar du-te ikasleek honako gaitasunak garatzen:

- 1.- Bereiztea: bereitzu behar dira ekialdeko eta mendebaldeko erlilio ugarienen ezaugarri, bereiz-garri, egitate eta ikur nagusiak, bai sakratuare-kiko dituzten ideiak azterzen direnean, bai gi-zakia eta bere dimentsio etikoa interpretatzeko orduan; beti ere, horrek guztiak herrien agerpi-deetan, jokabideetan eta kulturan duen eraginaz konturatuz.

La religión es un fenómeno cultural y como tal no constituye un fenómeno autónomo o aislabile del resto de las manifestaciones de una sociedad, tales como la política, la economía, el arte, la organización familiar... En este sentido, las creencias y prácticas sociales de la religión sólo se comprenden y explican cuando se las integra en la sociedad donde se producen y desarrollan. Las religiones se enraízan tan profundamente en las sociedades que resulta difícil, al menos en parte, comprender una cultura determinada sin recurrir a su compon-ente religioso.

La religión consiste, esencialmente, en una relación del ser humano con lo sagrado y trascendente y con las reacciones que lo sagrado suscita a nivel individual. Sin embargo, cuando esta relación entre lo sagrado y lo humano se exterioriza y se asocian los participantes de un hecho religioso para compartir celebraciones rituales, la religión se transforma en un fenómeno social. Son dos, por lo tanto, los elementos que vertebran el hecho religioso: la dimensión individual y la dimensión so-cial de la religión.

En esta propuesta curricular se conjugan dos pers-pективas en el tratamiento del hecho religioso: la cien-tífica y la laica. La interpretación del hecho religioso debe ser objeto de un estudio científico, a fin de que sea válido para todos, y esto exigirá una actitud inter-disciplinar entre las ciencias relacionadas con el hecho religioso (la antropología, la filosofía, la sociología, la historia, la filología). No menos necesario es el talante laico que garantice un espacio de libertad para que to-das las creencias sean respetadas y sea aceptada la di-versidad como un elemento de enriquecimiento social y cultural.

En la anterior etapa han sido los elementos sociales y culturales los ejes predominantes para el análisis del hecho religioso, en este curso de Bachillerato se inten-ta una reflexión crítica sobre la naturaleza de la religión como tal, sobre las relaciones entre razón y creencia, así como entre religión y convivencia cívica y política. Se pretende que los alumnos y alumnas capten y analicen el hecho religioso desde el pensamiento racional, filo-sófico o educado por la ciencia y la filosofía.

2.- Objetivos.

Estas actividades educativas han de contribuir a que las alumnas y los alumnos desarrollean las siguientes ca-pacidades:

- 1.- Distinguir los rasgos, hechos y símbolos prin-cipales que caracterizan a las grandes religiones de Oriente y Occidente, tanto en sus ideas sobre lo sagrado, como en su interpretación del ser huma-no y de su dimensión ética, percibiendo su in-fluencia en las manifestaciones, comportamiento y cultura de los pueblos.

- 2.- Kokatzea: egitate erlijiosoa, bada, dagozkion dimensio sozial eta kulturalean kokatu behar da; ikasleek argi eta garbi ikusi behar dute sinesmen eta praktika erlijiosoak ulertzeko, ezinbestekoak dela sinesmenok eta praktikok dagokien gizartean txertatzea, hau da, sortzen diren gizartean txertatzea.
- 3.- Aztertza: aztertu eta kritikoki baloratu behar dira egitate erlijiosoak gure gaurko munduan duen presentzia eta eragina. Horretarako, egitate horretan eragiten duten faktoreak eta aurrekariak hausnartu behar dira, bai eta egitatea mundurazten den modu eta agerpide ugariak aitoru ere.
- 4.- Eskubidea aitortza: egitate erlijiosoan norberak duen askatasuna norberaren eskubidetzat eta, aldi berean, lorpen demokratikotzat jo behar da. Eskubidea aitortzeko eremuia, hala, tolerantzia eta errespetua da, hain zuzen ere gaurko moduko gizarte laiko batek bermatzen duena.

3.- Edukiak.

1. BLOKEA: EGITATE ERLIJIOSOAREN IZAERA ETA OSAGAIAK.

Erlijo guztiek ikurrak, mitoak eta erritoak darabilzate. Íkurra esatean, zerbaiten errepresentazioa adierazi nahi da, hain zuzen ere, tokian bertan ez dagoen errealtitate baten errepresentazioa, zentzumenek berehalako antzematen ez dutena. Gizakiak, ikuspegia erlijiosotik, naturaz gaindiko izakietan edo izaki ikustezinetan sinesten duen neurrian, ikur bihurtu beste erremediorik ez du. Kultura bakoitzak eta, ondorioz, erlijio bakoitzak berezko ikur-sistema du. Ikurrak funsezkoak dira erlijioarentzat eta kulturarentzat, izan ere lagundu egiten dute erlijio-erakundeak mantentzen eta ondorengo belaunaldieei eskualdatzen, hau da, laguntzen dute komunikazio eta zentzu-ingurunea zehazten. Egitateen munduaz gain, baloreenera ere zabaltzen denez, ikurrak ez du bakarrik «dena» agintzen eta interpretatzet, eta, ondorioz, «izan behar duena» ere proposatzet du.

Mitoak narrazioak dira, munduaren eta gizakiaren jatorria, helburua eta zentzuaz azaltzen saiatzen direnak. Mitoek eta erritoek erlijioen oinarritzko egitura-unitatea osatzen dute, batasun modura. Erlijioen lengoaiak badaki, jakin, izaera mitiko-sinbolikoa duela; horrela, mitoak eta ikurrak desagertuko balira, kolokan jarriko lirateke erlijioen hizkuntza-jokoa eta esanahiak. Lengoia mitiko-sinbolikoa horrek lotura-funtzioa du, alegría, sakratua & denboraz haragokoa & dena historia erreala joanarekin eta orainarekin lotzen du.

Aurrekoa kontuan hartuta, unea heldu da, agian, erlijioaren fenomenologia-kontzeptuak lantzen hasteko; fenomenologiaren eraginez, erlijiosoak sakratu eta misterio bihurtzen da. Hausnartze horrek, aldi berean, aukerak eman dezake, batetik, erlijioaren azterketa filosófikoa egiteko eta, bestetik, erlijioek korronte filosofí-

- 2.- Situar el hecho religioso en su dimensión social y cultural, siendo conscientes de que las creencias y prácticas religiosas sólo se comprenden cuando se las integra en la sociedad que las produce.
- 3.- Analizar y valorar críticamente la presencia e influencia del hecho religioso en el mundo contemporáneo, reflexionando sobre los factores y antecedentes que influyen en el mismo y reconociendo las múltiples formas y manifestaciones a través de las cuales se manifiesta en el mundo actual
- 4.- Reconocer en el derecho a la libertad personal ante el hecho religioso, un derecho individual y una conquista democrática, en el marco de tolerancia y respeto que garantiza una sociedad laica como la actual.

3.- Contenidos.

BLOQUE 1: NATURALEZA Y COMPONENTES DEL HECHO RELIGIOSO.

Todas las religiones operan con símbolos, con mitos y con ritos. Símbolo es toda representación de una realidad ausente, no inmediatamente aprehensible por los sentidos. En la medida en que el ser humano, desde una perspectiva religiosa, cree en seres sobrenaturales e invisibles, no tiene otro remedio que representárselos mediante símbolos. Cada cultura y, por tanto, cada religión tiene su propio sistema simbólico. Los símbolos son vitales para la religión y para la cultura porque ayudan a mantener sus instituciones y a transmitirlas a otras generaciones, es decir, a pactar un contexto de comunicación y de sentido; dado que no se limitan sólo al mundo de los hechos, sino también al de los valores, el símbolo no se limita a ordenar e interpretar lo que se es, sino que también sugiere lo que debe ser.

Los mitos son narraciones que tratan de explicar tanto el origen como la finalidad o el sentido del mundo y del ser humano. Mito y rito forman conjuntamente la unidad estructural mínima de que están hechas las religiones. El lenguaje de las religiones es consciente de su carácter mítico-simbólico, de tal modo que la eliminación de los mitos y de los símbolos pondría en cuestión el juego lingüístico y de significados de las religiones; este lenguaje mítico-simbólico cumple la función de enlazar lo sagrado extratemporal con el transcurso de la historia real y también con el momento presente.

Teniendo en cuenta lo anterior, es quizás el momento de trabajar conceptos de fenomenología de la religión, que caracteriza lo religioso por lo sagrado o el misterio, lo que, a su vez, puede servir de introducción al estudio filosófico de la religión, así como a la consideración del influjo de la religión en concepciones filosó-

koetan duten eraginaz jabetzeko; eta eragin hori, gainera, erlijioz blai dauden korronteetan igartzen da (Kant, Hegel...), baina baita beste korronte kritiko batzuetan ere (Marx, Freud, Nietzsche...), hain zuzen ere, arrazoi antropologikoak eta ez-erlijiosoak bilatu dituztenak erlijioaren sorrera eta iraupena azaltzeko.

Azkenik, erlijioen azterketa tipologikoa einez, erlijio handien (kristautasun, hinduismo, budismo, judaísmo eta islamismoaren) funtsezko ezaugarriak, iku-rak eta egitateak ezagutarazi nahi dira. Eta bereziki aztertu nahi da azterketa hori gauza ote den erlijioen artean dauden oinarritzko antzak eta aldeak antzemateko, batez ere honako ideieei dagokienez: sakratua zer den, erritoak, ezaugarri diren ikurrak eta gizakiaren izatearen interpretazioa.

- 1.- Misterioa eta sakratua. Sakratua eta profanoa. Harraindikoaren zentzu.
- 2.- Hizkuntzaren erlijio-erabileraren berezitasuna: ikurra eta mitoa. Erritoa ekintza sakratu gisa.
- 3.- Erlijioen tipología. Oinarritzko ezaugarriak, iku-rak eta egitateak.
- 4.- Liburu sakratua duten erlijioak. Agerkundea.
- 5.- Erlijioak agerpide-sortzaile; kulturazko, izpirituzko eta filosofiazko agerpideak.
- 6.- Arrazoia eta fedea. Teismoa, agnostizismoa, fideismoa, ateismoa. Teología eta mistika.

2. BLOKEA: EGITATE ERLIJIOSORA HURBILTZEKO MODUAK.

Egitate erlijiosoa fenomeno soziokulturaltzat jo-tzean, balore eta sinismen-sistema bati buruz ari gara eta, sistema horren bidez, gizakiek mundu errealerako orientabideak eskuratzentzituz. Gizartean ekin eta eragiteko eredu espezifikoek, sinesmen erlijiosoen oinarriturik, gizarte-eginkizuna ematen diote erlijioari.

Bloke honen asmoa da, bada, erlijioak gizartearen egituretan, eguneroko jardunean, artean eta kulturan izan duen eta, kasu askotan, oraindik ere duen eragin itzela ezagutzea. Halaber, gizartearen eta kulturaren egitatetzat jo nahi da erlijioa, baina ez egitate aldaezin modura, baizik eta tokian tokiko kultura eta gizarteara egokitzen den gertakizuntzat, horietako bakotzetaik ohiturak, praktikak eta baloreak hartzen baititu.

Bloke honetan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat kode etiko eta erlijiosoen arteko bereizketa da. Erlijioa, portaera moraleko arauak agintzen duenez, etikatzat jotzen da sarri. Zenbait erlijioek eragin itzela izan dute eta dute gizabanakoaren portaeran eta gizarte-ordenean; horiei erlijio etiko edo moralak deitu izan zaie. Idazati honen bidez, antzeman nahi da zertain diren berdinak eta zertain ezberdinak portaera etikoa eta jokabide erlijiosoa, beti ere erlijio eta etikaren arteko harremanen esparru orokorraren baitan.

Mendebaldeko gizarte modernoari izaera sekularizatua eman ohi zaio: gizartearen eremu handiak (politi-

ficas, tanto aquellas más compenetradas con la religión (Kant, Hegel...), como aquellas otras más críticas y que ha buscado explicaciones antropológicas e irreligiosas en el origen y persistencia de la religión (Marx, Freud, Nietzsche...).

Finalmente, a través de un estudio tipológico de las religiones se pretende un reconocimiento de las características, símbolos y hechos fundamentales de las grandes religiones (cristianismo, hinduismo, budismo, judaísmo e islamismo) y, especialmente, si es capaz de establecer las semejanzas y diferencias básicas que existen entre ellas, sobre todo en lo referente a sus ideas sobre lo sagrado, a sus ritos y símbolos característicos y a su interpretación del ser humano.

- 1.- El misterio y lo sagrado. Lo sagrado y lo profano. El sentido de lo transcendente.
- 2.- La peculiaridad del uso religioso del lenguaje: símbolo y mito. El rito como acción sagrada.
- 3.- Tipología de las religiones. Características, símbolos y hechos básicos.
- 4.- Religiones con libro sagrado. La revelación.
- 5.- La religiosidad como generadora de manifestaciones culturales, espirituales y filosóficas.
- 6.- La razón y la fe. Teísmo, agnosticismo, fideísmo, ateísmo. Teología y mística.

BLOQUE 2: DIVERSIDAD DE FORMAS DE ACERCARSE AL HECHO RELIGIOSO.

Cuando se define el hecho religioso como un fenómeno sociocultural, se hace referencia a la idea de que presenta un sistema de valores y creencias en virtud de los cuales los seres humanos se orientan en su mundo real. Los modelos específicos de interacción social, basados en creencias religiosas, dan lugar a la existencia de funciones sociales de la religión.

A través de este bloque se pretende reconocer la enorme influencia que lo religioso ha tenido y, en muchos casos, sigue teniendo, en las estructuras y prácticas sociales, así como en sus muestras artísticas y culturales. Así mismo, y a la inversa, situar el fenómeno religioso como un hecho social y cultural, que evoluciona y se adapta a las culturas y sociedades en las que se integra y de las que recoge costumbres, prácticas y valores.

Otro aspecto que es preciso considerar en este bloque será la distinción entre códigos éticos y religiosos. La religión, al prescribir normas de conducta moral, tiende a identificarse con la ética. Las religiones que tienen gran influencia sobre el comportamiento humano individual y el orden social en general, han sido llamadas religiones éticas o morales. En este apartado se trata de exponer en qué coinciden y se diferencian, dentro de ese marco general de relaciones mutuas entre religión y ética, la conducta ética y el comportamiento religioso.

A la sociedad moderna occidental suele calificársele de secularizada, entendiéndolo como al emancipación

ka, artea, moral publikoa, hezkuntza, ideologiak) emantzipatu egin dira erlijioaren tutoretzatik. Sekularizazioarekin batera, laizismoa gertatzen da: laizismoa prozesu bat da, eta, bere bitartez, estatuek autonomia eskuratzentz dute erlijioetatik. Eta mendebaldeko gizartearen apurkako sekularizazio eta laizismoaren ondorioz, erlijioak krisi-bidean sartu dira.

Deskribatutako prozesuak, hala ere, ez du gizakion beharrizan erlijiosoak baztertu errotik, eta, are gehiago, erlijio-forma berriak sortzen ari dira. Gaur egungo gizartean aukeran dago sinestea eta ez sinestea, baina baita ezberdin sinestea ere; horrela, egun, sakratuak eta erlijiosoak ikuspegi eta agerpide ezberdin asko dituzte.

Gizartean, halaber, erlijio tradizionalaren ordezko produktu asko eta asko aurkitzen ditugu: praktika eta esperientzia mistikoak, okultistak, magikoak; edo eta sinkretismo erlijiosoak lantzen duten antzeko zerbaiteazizpiritu-jardunezko eskaintza ugaria, osasuna, kirola edo natura gurtzen dituztenak. Erlijio pribatu horietako kide bakotzak bere neurriko eta gustuko sinkretismoa praktikatzen du, eta jakina, horrek berarekin daraman erlijiosoaren subjektibizazioa ere bai. Praktika horiek, honenbestez, aniztasun kulturalaren giroan merkatatu dira.

Azkenik, ondo baloratu beharko da zein garrantzitsua den gizabanakoek tolerantziak eta errespetuzko jarrerak izatea erlijiozko portaeren inguruan, eta bai erlijio-fenomenoko aukera, sinesmen eta jarrera anitzen inguruan ere. Nolanahi ere, erlijio-askatasuna gizartearren aurrerapentzat jo behar da berez, nahiz eta, aldi berean, Estatuak eta erakunde publikoek izan eduki beharreko izaera laiko eta neutrala.

- 1.- Erlijiozkotasunaren dimentsioa gizartearen egituraren eta gizakien historian.
- 2.- Erlijioen krisia: sekularizazioa, laizismoa... Erlijio profanoak (esoterismo, mugimendu milenaristak, musika, kirola, gorputzaren gurtza...)
- 3.- Erlijioaren agerpide berriak: XX. mendeko erlijio-mugimenduak.
- 4.- Etika eta erlijioa: errealitate bakotza ezagutu. Erlijiozko etika eta etika laikoa.
- 5.- Politika eta erlijioa. Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak. Erlijio-askatasuna, tolerantzia eta fundamentalismoa. Erlijio-elkarrizketa.

de amplias áreas sociales (la política, el arte, la moral pública, la educación, las ideologías) respecto a la tutela de lo religioso. Junto con la secularización, se produce el laicismo, entendido como proceso por el que el Estado adquiere autonomía respecto de las religiones. La consecuencia de esta progresiva secularización y laicismo de la sociedad occidental acarrea la crisis de las religiones.

Sin embargo, el proceso descrito no ha erradicado las necesidades religiosas de los seres humanos, de tal manera que como consecuencia se está produciendo una nueva erupción de nuevas formas religiosas. En la sociedad actual no sólo es posible creer y no creer, sino también creer de diferentes maneras, de forma que hoy lo sagrado y lo religioso presenta innumerables rostros y manifestaciones.

Así mismo, hay una serie indefinida de productos sociales que constituyen sustitutivos y equivalentes funcionales de la religión tradicional, que se concreta en prácticas y experiencias místicas, ocultistas, mágicas o en el cultivo de una especie de sincrétismo religioso que configura una variada oferta espiritual que rinde culto a la salud, al deporte o a la naturaleza. Todas estas religiones privadas, donde cada uno practica un sincrétismo a su modo de entender, con la correspondiente subjetivización de lo religioso, se ha expresado en su mercantilización en un contexto de pluralismo cultural.

Finalmente, será preciso valorar la importancia de mantener actitudes de tolerancia y respeto hacia los comportamientos y posturas personales ante el fenómeno religioso y ante la pluralidad de opciones, creencias y actitudes hacia el mismo, reconociendo esta libertad religiosa como una avance social importante en sí misma, con independencia del carácter laico y neutral que deben mantener el Estado y las instituciones públicas.

- 1.- Dimensión de la religiosidad en la estructura social y la historia humana.
- 2.- La crisis de las religiones: secularización, laicismo... Religiones profanas (esoterismo, movimientos milenaristas, la música, el deporte, el culto al cuerpo...)
- 3.- Nuevas manifestaciones de la religión: Movimientos religiosos en el siglo XX.
- 4.- Ética y religión: Identificación de una y otra realidad. Ética religiosa y ética laica.
- 5.- Política y religión. Relaciones Iglesia-estado. Libertad religiosa, tolerancia y fundamentalismo. El diálogo religioso.